



KONPROMISOEI EUTSIZ, ESKUBIDE GUZTIEN JABE

15.000 pertsona inguruk parte hartu zuten igaran urriaren 7an Donostian Iratzarrik eta beste ia 40 sindikatu, gizarte eta gazte mugimenduk osatzen duten Ibaetako Bilguneak presoek eskubideen alde deitutako manifestazioan eta Euskal gizartea zoriondu nahi du Ibaetako Foroak, Espainiako eta Frantziako kartzela politikari eta horrek Euskal Preso Politikoen Kolektiboan dituen ondorioei emandako erantzunagatik».

Gizarteak hartutako konpromisoari eutsi behar dio euskal presoak eskubide guztien jabe Euskal Herriratu arte, eta salatze eta aldarrikatzeko bozgorailu izan behar du.

Konpromiso hori erabakigarria da bi gobernuak presoek egiten dieten «xantaia» amaitzeko.

Bide horretan, eta gobernuen inmovilismoak hala eskatuko duelako, azken ostiraleko elkarretaratzeak indartzen eta ekimen berriak antolatzen jarraituko dugu Ibaetako bilguneetik. Presoen aferan euskal erakundeek agertutako sentsibilitate falta salagarria da,

Donostiako alde zaharreko preso, Iñaki de Juana Chaosek 63 egun eman zituen bere eskubideen aldeko borrokan gose greba mugagabea. Ibaetako foroaren manifestazioan bere aldarrikapenak babes zabala izan zuen, elkartutako herritarrek behin eta berriro ohiukatu ziren bere askatasuna eskatuz.

presoen jasaten duten eskubide urraketa gaizki eta berandu erantzuten dute, krudeltasun honen guztiaren aurrean konpromiso tinkoak hartu behar dira.

Azkenik, Iñaki de Juanak 63 egun eta gero gose greba bertan behera uzteko erabakia ere baloratu nahi du Ibaetako foroak, De Juanaren erabakia konpromiso berrizat berri bat da, Euskal preso politiko guztien eskubideen aldeko konpromisoa, hain zuzen, eta bereziki, gaixo dauden presoek edo Parot doktrina aplikatu dieten guztiakiko konpromisoztat.

De Juanak duela bi urte libre behar zuen, kalean, eta berarekin bat gaixo dauden edo zigorra beteta duten 160 euskal presoak ere askatasuna berehala lortu behar dute.

Herriko komertzioa, jasangarritasun ekonomiko eta ekologikoaren eredu

Saltoki haundiak azken urteetan jasangarritasun ezaren ikur bihurtu dira.

Ezagunak dira zer nolako eragin negatiboak dituzten merkatal gune handiek, gehienetan kanpoko enpresen eskusartze bakarrarekin. Merkatal gune handi baten eragin negatiboenetako bat bezeroak bertaraino heltzean ematen da. Gaur egun ematen diren auto mugimenduen bigarren arrazoi nagusia erosketak egiteko da, lanera joatearen atzetik.

Auto pribatuaren erabilpena guztiz zabaldua eta bultzatua dagoen kultura honetan, non, oinez bost minututan iritsi baino lehenago autoa hartzea nahia go dugun, dena da posible. Beraz, eta orokorrean errepide alboetan eta hiriguneetatik kanpora ezarrita dauden saltoki handietara heltzeko ere, nola ez, autoa hartzen dugu. Izatez, populazioaren gehiengo oso zabal batek (%70etik gora) ia ez du beste ibilgailu motarik erabiltzen.

Kontutan hartu behar dugu jendeak ez duela merkatal zentroa erosketa gune soil bezala hartzen, baizik eta aisialdi gune erraldoi modura. Bestalde, auto pribatuaren erabilpenaren sustapena ematen da, merkatal gune handiek doako aparkaleku multzo izugarriak izaten baitituzte.

Bizkaiko ezkerrekoa da European biztanleko merkatal zentru gehien dituen eskualdea

Eusko jaurlaritzak duela hilabete pare bat hasi du berriro kanpaina bat gune txikien eta hirietako euskal komertzioa bultzatzeko asmoz, izan ere aste batzuk aurrerago kezkatuta azaldu zen gune haundiek pisu gehiegi dutelako euskal autonomi erkidegoan. Neurriak hartu ziren orduan; 5000 metrotik gorako zentru gehiago egitea debekatu zen.

Aurretik lizentzia lortu zuten enpresei ez die eragingo lege honek, horien artean Bilboko FNAC, portugalete eta Ondarroako EROSKI edo Barakaldoko

Megapark-eko bigarren hazkunde faseari. Baina merkatal zentruak abantaila eskaintzen dizkiete beren bezeroei; erosketa lekura autoz iritsi eta dohako aparkaleku segurua izatea, inolako arazorik gabe.

Gune urbanoetan erosketak egiten dituztenen artean kopuru nagusia oinez egiten ditu erosketak, batez ere herri txikietan, edo garraio publikoa erabiliz, hiri barruan bestelako garraioekin batuz, autobusa adibidez. Ekonomikoki euskal herriko interesen aldekoa den erosketa ekologiko eta jasangarriak, horregaitik bultzatu beharreko ekonomia jarduera da.



Herri kanpoaldeetako merkatal zentruen erabiltzaile gehienek autoa erabiltzen dute erosketak egiteko

Aurretik aipatu bezala, kotxeak poluzio gehien sortzen duten faktoreetako bat dira, beraz, interesgarria litzateke merkatal guneek kanon ekologiko bat ordaindu behar izatea duten garraio azpiegitura eskasagatik eta kotxeari ematen dioten garrantzi haundiagatik. Gainera Iratzarritik uste dugu derrigorrezkoa izan beharko lukeela beren aparkaleku guztietan ordainketa egitea (TAO sistema adibidez)

Eman beharreko beste pauso bat, dudarik gabe, autobus zerbitzuak indartzea, beraien eserleku kopurua eta maiztasuna handituz eta beste merkatal zentro handietara zabaltzea da. Horretarako, autobus zerbitzu horiek beraiek berme batzuekin ordaintzea eta gestionatzea legoke.

Hau aplikatu ezker, erregai kontsumoa gutxitzea, errepideen deskongestioa eta hiritarrentzako abantailak emango lirateke: ez auto-hilararik, ez erretentziorik, ez presarik.

Eusko Jaurlaritzak eta udaletxeek lizentzia kopuru haundiegiak eman zituzten merkatuaren eboluzioaren aurreikuspenik egin gabe.

IPARRALDEARI SO

Baterak sinadura bilketa jarraitzea pausu positibotzat jotzen du Iratzarrik


Izena bera ere adierazgarria dauka Euskal Departamenduaren aldeko plataformak. Batera lortu nahi dute duela urte gutxi batzuk arte ezinezkoa zirudiena eta batera lortzen ari dira, departamentuaren aldeko borrokak aurrera egitea.

Iparraldeko bozka emaileen %10 baino gehiagoren sinadurak bildu dituzte dagoeneko. Baina ez dute euren helburua ahaztu. Frantziar estatuko buruzagiek gogoz eman nahi ez dutena lortzeko modu bakarra, gaur egungo departamentuko biztanleen %10en sinadurak bildu eta Euskal departamentuaren aldeko galdekertari deitu, hori da helburua.

Momentuz 21.000 sinadura dituzte, haietatik 700 baino ez dira Biarnokoak. Ipar Euskal Herrian helburua bete dute, baina erreferendumerako deia egiteko 46.000 sinadura behar dira. Ezpeletan egindako azken asanblada orokorrean bertan bildutakoen gehienek lanarekin segitzea erabaki zuten, orain, Biarnoko lurretan egingo dute etxez-etxeko sinadura bilketa.

Jakina da, ordea, departamentua eskuratuta ere, Frantziar estatu zentralistan hori ez dela gehiegi ere izango. Baina agintariek onartu nahi ez dutena bistaraziko du: Ipar Euskal Herria, Euskal Herria, existitzen dela eta Euskal Herriaren auzia beraientzat ere existitzen den auzia dela, ez soilik, Parisi askotan aditu ohi zaion bezala "Espainiaren barne auzi".

Ez da batere erraza izan, ezta izango ere. Alde batetik, Parisen jarrera, bestetik, eta honek hausnarketara eramane beharko gintuzke hainbeste eta hainbeste abertzaleoi, azken urteok arte Hegoaldekook dena egintzat eman dugula, ez dugula Iparraldearen nortasun hori ulertzen jakin. Askotan, gure Euskal Herriak ez ditu Iparraldeko beharrak eta erritmoak barne hartu, eta horren eraginez, euskal lurralde guztietatik, Iparraldean dago momentu honetan abertzaletasuna okerren. Hori garbi ikusi zuen ABk bere




garaian, eta baita Aralarrek alderdi bezala egituratu zenean ere. Oso berandu ohartu ginen beste lurraldeetako moduek ez zutela iparraldean ezer positiborik lortzen, eta hegoaldean ezereza ziruditen lorpenak, apenas etxearen azken ukitua edota etxe-ko lehenengo besaulkia, Iparraldean etxe osoaren lehenengo harriak zirela.

Estrategia propio horren fruitu da Bateraren sinadura bilketa kanpaina, eta kanpaina horren emaitza ikusgarria. Departamentua, hain beharrezko den lehen pausu hori, egituratzen den egunean, Bateraren etxez-etxeko sinadura biltzaileen eta beste hainbeste hautetsiren (abertzale edo ez) eta Iparraldeko hiritarren sorbaldean gainean, berauen lan eskergaren ondorioz izango da.

Hilabete batzutan kanpainak geldi egon behar du, kanpaina elektorala datorrelako, eta berarekin sinadurak biltzeko debekua. Baina horrek ez du Bateraren eginkizuna geldiaraziko, ezta urrik eman ere. Emaitza gizarteratzen eta hurrengo pausuak prestatzen emango dute denbora hori, hemendik gutxira sinadurei buruz baino, herri kontsultari buruz hitzegiteko aukera izan dezagun.

Iratzarrik lan guzti horrekin bat egiten du, euskal departamenduaren aldeko borroka da eta Euskal Herriaren helburu nazionalen lehen pausua.

Beste durango bat posible da?



Oiz eta Mugarra artean dagoen eskualde buru honetan, Durangon, nazioartean gero eta gehiago inposatzen ari den sistema kapitalista eta neoliberalen hatzaparretan gaude zeharo. Hemen ere nabaritzen dugu, sistema sasi demokratiko honetan, herritarren borondatea ordezkatzeko izendatuak izan diren politikoen jarduna: lau urtean behin herriari galdetu, herriaren lekuan jarri eta edozein erabakia hartzeko zilegitasunarekin sentitzen dira, nahiz eta herriaren borondatearen aurka joan.

Adibide txiki bat jartzearren, ikurrinarekin gertatutakoa: 70. hamarkadan kokatua dagoen zinegotzi batek lege espainola betearaztea eskatu duelako, herritarren borondatearen azken ordezkariak, udaletxeko balkoitik kentzeko agindua eman du. Herritarren nahia eta beste aukera posibleak kontuan izan gabe. Baina tamalez hau adibide txiki bat da, askoz larriagoa izan daiteke gure herriak darman garapen eredu. Durangoko erditik sartzen eta irtean, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Eta azken ukitua emateko zera erantsi behar da: Durangoko PERI guztietan babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua %30ekoa baldin bada, honetan %20a bakarrik. Hau guztia, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan, Bilbo-Donostia trenbide loturak ez duelako inoiz benetako garrantzia izan. Nahiago dutelako beste azpiegitu-

retan, AHT kasuko, dirua gastatzea.

Horregatik alegia, Euskotrenek lurperatzeko lanak etxebizitzaren inbertsioarekin ordaindu behar ditu.

Baina nori axola dio trenbidea lurperatzeko gure lurzoru planeamendua betirako hipotekatu behar izana, edo herri honen mugikortasuna guztiz ez-jasangarria izatea. Azken finean Zaha Hadidek egingo baitu proiektua eta horrek "prestigioa" dakar. Baina hau ahal da benetan Durangarrok nahi dugun Durango: proiektu handi eta liluragarrietan oinarritutako garapena; dirua eraikuntza erraldoietan gastatuz eta ez benetako beharretan; kanporako itxurosoa eta barrutik guztiz usteldua. Bide ilun honetan ez da argi izpirik ikusten, beste Durango batekin amesten dugunok elkar mokoka jarraitzen dugun bitartean, Euzkotarrek politikoak betetzen jarraitzen dute.

Garai zailak dira enkarterrietako ekonomiarako. Duela hilabete batzuk Pastguren-Virtisu enpresa itxi eta produkzioa atzerrira eramana nahi izan bazuten, oraingo honetan, Gueñeseko Reckitt Benckiser enpresan daukate arazoak.

Londresen egoitza zentrala duen enpresa honen zuzendaritzak atzerrira eramana nahi du bere produkzio guztia, enkarterrietan daukan faktoria itxiz. Neoliberalismo basati itxura hartu du kasu honek.

Reckitt taldearen zuzendaritzak emandako arrazoi bakarra onura ekonomiko haundiagoak lortu nahi dituztela da, ez dute ezer-

tarako esaten enkarterrietako faktoria errentagarria edo ez den, baizik eta bere kosteek ez dutela diru gehiago lortzea uzten.

Ez dute inolako lotsarik batzbeste 40 eta 45 urte artean dituzten ia 200 langile kale goorian utzi nahi izateko.

Hartutako erabakia bere horretara ahalik eta lasterren eramana nahi dutela ikusita, administrazioak premia neurriak hartu beharko lituzkete itxiera honek eragingo lieken

langileei babes instituzional eta juridikoa emanez eta ahalik eta gehien oztopatuz, eta horreka deslokalizazio enpresariala horrenbeste jasaten ari den euskal industria eta batez ere enkarterrietako ekonomia babestuta geratu dadin.

Ez dadila galdu lanpostu bat gehiago Euskal Herrian deslokalizazioengatik.

RECKITT BENCKISER

ITXIERA ARRISKUAN!

22 ERAKUNDEK NEURRI KONKRETUAK ESKATU DITUZTE PREKARIETATEAREKIN AMAITZEKO ASMOZ

IRATZARRIK eta Eusko gazte kontseiluan biltzen diren beste 21 gazte erakundek, sindikatuetaiko gazte arlo eta eragilek prekarietatearen kontrako lantaldea bultzatu dute Euskal Autonomi Erkidegoan. Ekainaren hasieran manifestua kale-ratu zuten sinatzaileek eta gazte langileriak jasaten dituen lan baldintzak salatu zituzten, neurri konkretuak har daitezela exigituz. Sinatzaileen artean, besteak beste Iratzarri, Ezker batua gazteak, EHNE sindikatua eta gazte komunistak taldeak aurkitzen dira. Talde honek ekimen ugari prestatu ditu irailetik aurrera.

Sinatzaileen usteetan gazte lanpostu prekarioen arrazoi nagusienetako batzuk "aldibaterako eskulana, arrisku laboralen prebentzio eza, lan ordu kopuruaren igoera eta subkontratazioa" dira.

Manifestuak datu larri bat ematen digu, "gazteen %77 aldi-baterako kontratuarekin edo kontratu gabe sartzten dira merkatu laboralera, gainera euskal gazteriak europako langabezi tasa altuena dauka (%20).

Emakumezkoen kasuan datua areagotzen delarik, gizonezkoek baino 3.000 euro inguru gutxiago irabaziz hauen langabezia tasa 6 puntu goragokoa delako, esan dezakegu EAEn gazteriarri lotutako lan prekarietatea emakumeari lotuta ere doala.

Urtetik urtera lanpostuetan errotazioa handitzen da, modu horretan geroz eta kontratu iraupen txikiagoa den bitartean errotazioa geroz eta handiagoa da.


Gazteei askotan ez zaie langile egoera aitortzen, bekarioak eta praktiketan ari diren ikasleak, adibidez, prekarietate egoeran dihardute lanean eta ondorioz ez dute horrek dakarren eskubiderik laboralik. Era horretan enpresek eta administrazio publikoak, gazteei kontratua langile izatearen ondoriozko eskubidea denik ez diete erakusten. Denbora luzerako izan daitekeen beka garai bat igaro ondoren eskuratutako eskubidea dela dirudi.

Laburbilduz, konpetitibitatezko lan harremanen irizpide neoliberaletan oinarritutako lan merkatu horrek, indibidualismoan, gizarte hausturan, kontsumismoan... oinarritutako gizartea sustatzen du; praktikan, milaka gazterentzat orekan oinarritutako bizitza lortzea ezinezko egiten duena.

Sinatzaileek kalitatezko lanaren aldeko defentsa eskatu diete administrazioei eta euren arteko koordinazioa handitu dezatela. Horrez gain, lanaldiaren murrizketa, enplegua-

ren gehitze eta banaketa egokia sustatzeari begira jarritako neurri zehatz eta efektiboak erabiltzea, beken deusezte eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean bekadun eta praktikan diharduten ikasleen kolektiboaren barneratzea, eta laborantza eremuan gazteria kopuru handiagoa inplikatzeari begira, inbertsio maila handiago bat ematea.

Aberastasunaren banaketa egokiagoa eskatzen da ere, bereziki gazteriarren baldintzak hobetuko dituen eta gizarte bazterketaren aurrean benetako aldaketa ekarriko duena.



**EUSKADIKO GAZTE
KONTSEILUA**



HIPOTEKA ZURE NEURIRIA

banketxeak • inmobiliariak • konstruktoreak

LAPURRAK!

ETXEBIZITZA, GERO ETA ZAILAGO

30 urtetik beherako langile baten batz bestez 1200 € inguruko soldata irabazten du, merkatuko etxebizitza ordaintzeko hipoteka, 35 urtera, euri-borraren azken igoerarekin urteko 900€ inguru ingurutan geratzen da.

Teorikoki, hipoteka horri aurre egin eta 300 € rekin bizi beharko luke gazte batek, eta hori erretiratu arte ordaintzen jarraituz. Horren aurrean, banku, konstruktora eta askotan erakundeen erantzuna garbia izaten da; jendeak beharra izanda ordaindu egiten duelako saltzen da halako prezioan. Edo bestela lurra garestitu egin delako, edo materialen prezioak gora egin duela...

Eraikuntzako materialak %15ean igo dute prezioa azken urteetan eta lurraren kostua %25 hasi da. Etxebizitzaren prezioak EAEn, aldiz, %250ean egin dute gora batzbeste.

Jendartean berehalako epaiketa bat egiten zaie gazteei. "Borroka daitezela etxebizitzengaitik". Baina hori ez da soluzioa, duela 40 urteko alokairuekin edota etxe bat baino gehigodunek ederto ikusten dute egoera. Ez die ezertarako

eragiten. Edo hori uste dute.

Lurraren kostua %25 igo da azken urteetan. Eraikuntzarako materialak IPC orokorra baino gutxiago, %15 inguru. Aldiz, merkatuko etxebizitzaren prezioak gora egin du %250eko batasbestez, hots, ia hiru aldiz gehiago kostatzen dela gaur egun etxebizitza erostea, soldatak alde batera utzita.

Gauzak horrela, ez da hain harritzekoa ere Acciona, Sacyr-Vallehermoso eta hantzekoek azken urteetan lortutako irabazi ikaragarriak, hipotekak kudeatzen dituzten banku eta kutxekin batera, hortik lortu dute beste enpresa batzuk erosteko lortu duten dirua. BBVak adibidez, etekinak bikoiztu egin zituen iaz eta jakina, lapurreta hau legearen (edo legearen hutsuneen) bedekazio guztiekin egin da.

Baina kezka daukate orain bankuek, ez jendeak ordaindu ahal izan eta ordaindu nahi ez duelako edo jada herri eta gune ezberdinetan ematen hasi den erantzunagatik, baizik eta, beren negozioak sabaia jo duela uste dutelako. Merkatua, egotez, oraindik badago: populazioa gutxi gorabehera berdin mantendu den arren, gaur egungo familia ereduak ezberdinak dira familia berriak askoz txikiagoak dira eta etxebizitzako 5 pertsona izatetik 2 t'erdi izatera pasa gara.

Merkatuaren lege "arruntak" bete izan balira, etxebizitzaren prezioa gehienez %35 inguru igo izan beharko litzatekeela onartu dute euren ekonomistek ere. Hori kontutan hartuta, urrezko arrautzen oiloaren heriotza ez dakar berarentzat artoa ekarriko duen norbaiten faltak eragingo.

Interes-tasa altuak dira orain mehatxu. Interes tasa altuagoak: hipoteka handiagoa. Kuota handiagoa. 50 urterako hipoteka? Ez da erantzuna. Bikoitza ordaindu besterik ez da egiten. Eta oinordekoei testamentuan: "Nire gauza guztiak, hots, hipoteka, uzten dizuet herentzia bezala. Goza ezazue nik gozatu dudan beste". Beraz, kuotak gora, soldatak ia izoztuta...

Hipotekek ia-ia guztiz itotzen dute gazteen ekonomia. Hipotekak bere osotasunean ezin ordainduko dituen lehenengo belaunaldia izango gara. Ez da hainbesteko arazoa izango. Desjabetzeren bat edo beste, kutxak edo bankuak berriz salgai jartzen du etxebizitza, eta gainera prezio altuagoan.

Egia ez da haintzat hain xamurra izango. Beraiek puztu zuten etxebizitzaren prezioa, hutsik dauden milaka etxebizitza eskuratuz, eta berriak baino ez salduz. Itxurazko eskasia horrekin lortu zuten momentuko burbuila hau.

Zer gertatuko da gazteek ez ezik, hainbeste eta hainbeste hipoteka ordaindu ezinean aurkitzen direnean? Dena desjabetu?

Bai, eta etxebizitza berri horiek nolabait mugitu behar dira. Hipotekadunen proportzio handi batek ordain ezin dezakeenean, hipoteka gabe-koek ere ezingo dute holako bati aurre egin.

Ondorioa: prezioak jaitsi behar. Adreiluan egin-dako inbertsio guztiak kale. Bankuek eta kutxek eskura duten diru gehiena desagertu. Eta kate efektua ekonomiaren beste hainbeste arlotan.

Eta, bitartean, egoerari aurre egiteko oso lana-bes berri gutxi ematen dituen Lurzoruaren Legea "interbentzionista" da, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren prezioa "irrazionala" delarik. Ea arauketa ezaren alde dauden guzti hauek zer dioten burbuila lehertzen bada. Ez da igarlea izan behar jakiteko. Seguru diru publikoa eskatuko dutela sistema horren egundoko zuloak estaltzeko diru publikoa eskatzen dutela, merkatuko prezioak beherakada nabarmena ematen duenean.

Baina, jakina, gazteak ez emantzipatzea edo

Oinordekoentzako testamentu xamurra dauka gure belaunaldiak; "nire gauza guztiak, hau da, hipoteka uzten dizuet. gozatu nik egin dudan beste"

etxebizitza gero eta urrunago ikustea, ez da arazo larria. Inork gutxi hartzen du benetan merezi duen bezala: egoera ekonomiko osoaren ahultasunaren isla baino ez.

Eta, jakina, Legedia aldatu eta alkiler soziala, onargarria den prezioetara ezarritako Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta beste zenbait partizileria baino ez dira. Gauzak gaizki doazen momentuan laguntzak eskatzen dituzten "merkatu librearen" nagusien esanetan jakina.

Asamblea de la juventud
Assemblée de la jeunesse

Gazteriaren
Biltzarra 06



azaroak 18
biltzarra Andoainen

animatu eta parte hartu!
www.gazteriarenkontseilua.org



eHgk
Euskal Herriko Gazteriaren Kontseilua

Gazteok erabaki, gazteok eraiki

7.orr

NOMBRE/IZENA:.....
HELBIDEA/DIRECCION:.....
HERRIA/PUEBLO:.....KP/CP:.....
TFNO:.....E-MAIL:.....
OHARRAK/NOTAS:.....

AFILIATUA
 ARALARZALEA
 LAGUNTZAILEA

EGOITZAK / SEDES:

NAFARROA

Egoitza Nagusia

Aduanaren txokoa 16-18, behea, 31.001, Iruñea.

Tel.: 948 20 63 62; Faxa: 948 20 60 03

nafarroa@aralar.net

GIPUZKOA

Gipuzkoako egoitza

Madril Etorbidea 8, 1. solairua, 20.011, Donostia.

Tel.: 943 47 19 55; Faxa: 943 47 06 36

gipuzkoa@aralar.net

Debagoieneko egoitza

Salbador 1, behea, 20.690, Elgeta.

Tel.:943 76 83 09

elgeta@aralar.net

Oarso-Bidasoako egoitza

Kale Nagusia 14, behea, 20.301, Irun.

Tel.:943 63 12 90

oarso-bidasoa@aralar.net

BIZKAIA

Bizkaiko egoitza

Aretxabaleta 4, 1. solairua, 48.010, Bilbo.

Tel.: 94 421 28 56; Faxa: 94 421 25 01

bizkaia@aralar.net

Uribe kostako egoitza

Illeta, 4 Behea, 48991 Algorta

uribekosta@aralar.net

ARABA

Arabako egoitza

Kanpokale berria 4, behea, 01.001, Gasteiz.

Tel.: 945 25 26 31; Faxa: 945 25 26 31

araba@aralar.net

BATEGIN
IRATZARRIREKIN
ezker gorria

Gazte erakunde berria gara, ideia eta ekinbide fresko eta berrituekin.

Gazte gara, eta gure eskubideen alde borrokatzen gara, herriz-herriko antolakuntza bultzatuz.

Militanteei loturarik ezartzen ez dien gazte antolakunde askea gara.

Errepublika nahi dugu euskal estatu independenterako. ezker gorria gara.

Instituzioetarako zuzeneko sarbide politikoa daukagu; Aralar.

Proposamen zehatzak egiten ditugu etxebizitza, prekarietatea, hezkuntza eta hizkuntzaren inguruan.

Lurraldetasunerantz lan egiten dugu, ekonomikoki eta ekologikoki jasangarri den eredia bultzatuz.

Euskal Herriaren askapen nazional, eta soziala ezkerretik eraikitzen dugu.

Gure herrian gu bizi garelako, gure erabaki ahalmena aldarrikatzen dugu.

 **iratzarri**
ARALAR GAZTEAK

www.iratzarri.org